

begirada

87



otsaila  
2023








Photo by Orlando Imperatore / Cropped from original

Lege-gordailua BI-1163-05

ikus  
pegi

Immigrazioaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de Inmigración



# EAE-N NAZIOARTEKO BABESA ESKATU DUTEN PERTSONAK, 2022

Begirada honetan Euskal Autonomia Erkidegoko nazioarteko babesari buruzko datuak aztertzen dira, eta horrela, 2021eko eta 2022ko otsailean, hurrenez hurren, argitaratutako 79. eta 83. begiradetan garatutako informazioa eguneratzen da.

Barne Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera, 2022an nazioarteko babesari jasotzeko eskaerak gora egin dute Euskadin, 2020tik pandemiaren ondorioz izan den joera aldatuz.

Pandemia gainditzea eta Ukrainako gerra izan dira gorakada horretan eragina izan dezaketen bi fenomeno; izan ere, 2021ean baino % 136,9 gehiago izan dira egindako eskaerak, 4.086 guztira.

# 1 Nazioarteko babes eskatuak EAEn


Barne Ministerioak 2022. urterako argitaratu dituen behin-behineko datuen arabera, nazioarteko babeserako 4.086 eskaera egin dira Euskal Autonomia Erkidegoan –aurrerantzean, EAE– urte horretan zehar. Datu horrek adierazten du egindako eskaeren kopuruak nabarmen egin duela gora (% 136,9) aurreko urtearen aldean, 2021ean baino 2.361 gehiago.

Azken 16 urteetako nazioarteko babes eskaeren kopuruaren bilakaerari behatuta –1. grafikoa– ikus daiteke 2006 eta 2015 urteen artean eskaera kopurua txikiagoa izan zela, urtean 100 inguru. Gero, goranzko joera argia izan da 2016tik aurrera (urte horretan 500 eskaera egin ziren). Hurrengo urteetan gorakada azkarra egon da, eta 2019an eskaera kopurua gorenera iritsi zen, 4.827 eskaerarekin, serie osoko kopururik altuena.

Pandemiaren ondorioek joera-aldaketa bat eragin dute, eta horren ondorioz, bi urtez (2020 eta 2021) eskaera kopurua nabarmen jaitsi da; 2021ean 1.725era jaitsi zen. Hala ere, urte horretako kopurua 2019 arteko urteetakoa baino handiagoa da. 2022an, joera gorantz hasi zen berriro: EAEn 2.361 nazioarteko babes eskaera gehiago egin ziren, eta eskaeren kopurua 2019koen antzeko zifretan kokatu zen berriz ere –4.086 inguru, hiru urte lehenagoko 4.827en aldean–.

## 1. grafikoa

Nazioarteko babes eskaeren bilakaera EAEn, absolutuak, 2006-2022



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuetan oinarrituta.

Joeraren bilakaeran bertan ikus daitekeenez, urteetan zehar egon diren hainbat gertakarik argi eta garbi eragiten diote eskaeren kopuruari. Dagoeneko aipatu dugunez, 2020ko pandemiak migrazio-fluxuak eta nazioarteko babes eskaeren joera nahasi zituen. Horrela, 2022rako, baliteke eskaera kopuruaren gorakada handia Ukrainako gerraren ondorioz gertatu izana, baita Peruko krisi politikoaren ondorioz ere.


Hala ere, 2022ko behin-behineko datuek ez dute eskaerak egin dituzten pertsonen jatorriari buruzko informaziorik ematen, eta, beraz, ezin dugu benetan kalkulatu goian aipatutako gertaerek zer pisu izan duten nazioarteko babes eskaeren gorakadan.

Datuak sakonago aztertzeko, eskuragarri dauden 2021eko datuetara jo behar dugu, une honetan osatuenak baitira, eta eskaera horiek egin dituzten pertsonen ezaugarrietan sakontzeko aukera ematen baitigute.

2021eko eskaerak sexuaren arabera aztertuz gero –2. grafikoa–, ikus daiteke nazioarteko babes eskatzen duten gizonen ehunekoa handiagoa dela, % 57,4, eta emakumeena, berriz, % 42,6.

## 2. grafikoa

*Nazioarteko babes eskatzaileen eta EAEEn erroldatutako atzerritar jatorriko pertsonen sexuaren arabera banaketa, %, 2021*




*Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren eta EInen datuetan oinarrituta.*

Ikusten dugu, beraz, azken begiradako datuekin alderatuta, bi sexuen arteko aldeak areagotu egin direla –14,8 puntu inguru 2021ean, eta 3,0 puntu, berriz, 2020an–. Gainera, gizonen proportzio handiago hori ez dator bat EAEEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen sexuaren arabera banaketarekin, emakumeen proportzio handiagoa baitago gizonena baino (% 47,6 eta % 42,4, hurrenez hurren).

## 3. grafikoa

Nazioarteko babes eskaeren banaketa jatorri-eremuen arabera, %, 2021



2021ean, Latinoamerika da nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen artean jatorri-eremu nagusia, guztizkoaren % 74,2 –3. grafikoa–. Saharaz hegoaldeko Afrika, alde handiarekin, eskaera kopuruaren arabera bigarren jatorri-eremua da, guztizkoaren % 10arekin. Ondoren, Asia dago (% 7,1) eta, azkenik, Magreb (% 5,4) eta EBtik kanpoko Europako herrialdeak (% 3,1) daude; munduko gainerako zonaldeetatik etorritako pertsonen eskaerak % 0,1 pasatxo dira.

Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuetan oinarrituta.

Nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen jatorriaren arabera datuen bilakaerari erreparatuz, datu horiek hainbat joera-aldaketa erakusten dituzte urteetan zehar –1. taula–. Horrela, 2006tik 2015era bitartean, nazioarteko babes eskaera gehienak Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen egiten zituzten, baina 2016tik aurrera nabarmen gora egin dute Latinoamerikatik etorritako pertsonen egindako eskaerek. Venezuelan –eta 2018tik aurrera Nikaraguan– izandako krisi politiko eta ekonomikoak eta Kolonbiako babesgabetasun eta indarkeria giroak azaltzen dute, hein handi batean, urte horietan latinoamerikar jatorriko pertsonen egindako eskaeren gorakada.

Era berean, Europar Batasunetik kanpo dauden Europako herrialdeetatik datozen pertsonen nazioarteko babes eskaerak ere nabarmen igo dira 2015etik aurrera, aurreko urtearekin alderatuta 6 aldiz biderkatuz (7 eskaera 2014an eta 42 2015ean). EBtik kanpoko Europako herrialdeen seriearen kopururik handiena 2019an eman zen, eremu horretatik zetozen pertsonen 310 eskaera egin baitziren<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Nazioarteko babes eskatzen zuten ukrainar jatorriko pertsonen kopuruak gora egin zuen azken urteotan, baina EBtik kanpoko beste jatorri batzuek ere gorakada handia izan zuten, hala nola Georgiak. Izan ere, 79. begiradan aurkeztutako datuen arabera, 2019an Georgia bosgarren jatorria izan zen EAE nazioarteko babes eskaeren kopuruari dagokionez, Europar Batasunak eta Georgiak bisen arloan egindako akordioa dela-eta.

## 1. taula

*Nazioarteko babes eskaeren bilakaera jatorri-eremuen arabera, absolutuak, 2006-2021*

	EBtik kanpoko Europa	Magreb	Saharaz hegoaldeko Afrika	Latinoamerika	Asia	Gainerakoak	Guztira
2006	5	12	48	10	4	1	80
2007	2	11	69	6	4	-	92
2008	3	7	84	6	8	-	108
2009	8	4	88	7	10	-	117
2010	7	2	60	2	8	1	80
2011	4	7	80	8	15	2	116
2012	5	5	44	5	19	-	78
2013	-	1	46	4	11	-	62
2014	7	4	54	9	25	-	99
2015	42	3	61	28	29	-	163
2016	77	19	108	239	57	-	500
2017	124	20	113	650	60	3	970
2018	150	23	126	1.260	36	1	1.596
2019	310	71	255	4.115	72	4	4.827
2020	73	52	95	2.822	39	4	3.085
2021	54	93	173	1.280	123	2	1.725

*Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuetan oinarrituta.*

Jatorri-herrialdeen arabera nazioarteko babes eskaeren kopuruari erreparatzen badiogu –2. taula–, Kolonbia eta Venezuela nabarmentzen dira besteen gainetik, 2021ean nazioarteko babes eskaera gehien izan zituzten herrialdeak baitira, % 27,4 eta % 27,3, hurrenez hurren.

Ondoren, Latinoamerikako beste bi herrialde daude, alde handiarekin: Nikaragua (% 7,7) eta Honduras (% 6,3). Nigeria da Latinoamerikatik kanpo eskaera gehien dituen jatorria, (% 3,8).

Datuak antzekoak dira hiru lurralde historikoetan, alde batzuekin bada ere. Araban, Mali da hirugarren jatorria (% 7,8), eta Bizkaia eta Gipuzkoa orokorrari jarraitzen diote.

## 2. taula

Nazioarteko babes eskaerak jatorri-herrialdearen eta lurralde historikoaren arabera, absolutuak eta % bertikalak, 2021

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa					
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%				
1	Kolonbia	473	27,4	Kolonbia	97	32,8	Venezuela	322	36,6	Kolonbia	161	29,3
2	Venezuela	471	27,3	Venezuela	51	17,2	Kolonbia	215	24,5	Venezuela	98	17,8
3	Nikaragua	132	7,7	Mali	23	7,8	Nikaragua	43	4,9	Nikaragua	89	16,2
4	Honduras	109	6,3	Nigeria	21	7,1	Afganistan	29	3,3	Honduras	81	14,7
5	Nigeria	65	3,8	Aljeria	17	5,7	Nigeria	29	3,3	Afganistan	18	3,3
6	Afganistan	62	3,6	Afganistan	15	5,1	Peru	27	3,1	Maroko	17	3,1
7	Aljeria	47	2,7	Maroko	13	4,4	Pakistan	26	3,0	Aljeria	16	2,9
8	Maroko	38	2,2	Pakistan	8	2,7	Senegal	25	2,8	Nigeria	15	2,7
9	Pakistan	38	2,2	Peru	8	2,7	Honduras	23	2,6	Senegal	6	1,1
10	Peru	37	2,1	Senegal	6	2,0	Georgia	22	2,5	Costa Rica	4	0,7
	Gainerakoak	253	14,7	Gainerakoak	37	12,5	Gainerakoak	118	13,4	Gainerakoak	45	8,2
	Guztira	1.725	100	Guztira	296	100,0	Guztira	879	100,0	Guztira	550	100,0

Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuetan oinarrituta.

## 4. grafikoa

Nazioarteko babes eskaeren bilakaera EAEn, jatorri-eremu nagusien absolutuak, 2013–2021

4. grafikoa, 2013tik egindako eskaera-kopuruaren bilakaera ikus daiteke, jatorri-herrialdearen arabera, 2021ean nagusienak diren bost kasuetarako. Ikus daitekeenez, Kolonbia, Venezuela, Nikaragua eta Honduras izan dira azken urteotako lau jatorri nagusiak.


Migrazio horien atzean dauden arrazoiei dagokienez, indarkeria-testuinguruei –Kolonbia eta Honduras– eta krisi politiko-ekonomikoei –Venezuela eta Nikaragua– lotuta egon direla esan dezakegu.

Ildo horretan, Latinoamerikako lau herrialde horiek antzeko goranzko joera izan dute 2015 eta 2019 artean.

Orduz geroztik, eskaeren kopuruak behera egin du: 3.868 eskaera egin ziren guztien artean 2019an, eta 1.185 eskaera 2021ean. Bi urteko epean, % 69,4ko beherakada izan da.

Nigeriaren kasuak, ordea, beste logika bati jarraitzen dio: 2020tik 2021era bitartean 16 eskaera gehiago aurkeztu dira (2020an 49, eta 2021ean 65). ACNURek (2023) adierazi du herrialdearen ipar-ekialdeko matxinada eta gatazkak direla Nigerian lekualdatutako pertsonen kopuruaren gorakadaren arrazoiertako batzuk.

Ildo horretan, NBEk (2022) aurreikusten du, gainera, klima-aldaketaren ondorioz eskualdeko gatazkak larriagotu egin daitezkeela datozen urteetan, eta, hala, lekualdatutako pertsonen kopurua handitu egingo dela.



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuetan oinarrituta.


Nazioarteko babes eskaerak ukatzeari edo onartzeari dagokionez, Barne Ministerioak Espainia osorako argitaratutako datuetatik abiatuta, EAEn eskaera gehien egin dituzten herrialdeetako datuak erakusten ditugu<sup>2</sup> –5. grafikoa–. Datu horiek erakusten dute eskaera gehienak (% 70,9) ukatu egiten direla, jatorri-eremu guztietan antzeko proportzioan. Venezuelaren kasuan, Asilo eta Babeserako Ministerio arteko Batzordeak –CIAR– 2019ko martxoan proposatu zuen arrazoi humanitarioengatik bizileku-baimena ematea Venezuelako nazionalitatea duten pertsona guztiei; bestela, haien nazioarteko babes eskaerak ukatu egingo zituzketen. Horrela, 2021ean venezuelarren % 82,0k bizileku-baimena lortu zuten arrazoi humanitarioengatik.

Venezuelako kasuaz harago, gainerako jatorri-herrialdeetako ukapen-tasa % 80 ingurukoa edo hortik gorakoa da.

<sup>2</sup> Autonomia-erkidego bakoitzean egindako eskaeren daturik ez dagoenez, ukatutako eta onartutako eskaerei buruzko datuak Espainian erregistratutako nazioarteko babeserako eskaera guztiei dagozkie, eta EAEn dauden jatorri-eremu nagusien arabera adierazten dira.

## 5. grafikoa

*Ukatutako eskaerak eta nazioarteko babes aitortzea Espainian, jatorriaren arabera, %, 2021*



*Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuetan oinarrituta.*




## 2 EAeko biztanleek nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen buruz duten pertzepzioa

### 6. grafikoa

EAeko biztanleen iritzia nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrerari buruz, %, 2022

Ikuspegiren Barometroak urtero jasotzen ditu EAeko biztanleek jatorri atzeritarra duten pertsonen buruz dituzten pertzepzioak, eta, besteak beste, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen buruzko galderak egiten dituzte. 2022ko Barometroko datuek adierazten dute nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harreraren onarpen maila oso ona dela –6. grafikoa–. Datu horien arabera, EAeko biztanleen ia erdiak (% 49,7) nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak mugarik gabe hartzea onartuko luke. Bestalde, biztanleen % 36,3k adierazi du hartuko lituzkeela, baldin eta jazartzen dituztela frogatzen bada. Hala ere, % 11,2k errefuxiatu kopuru mugatua hartuko luke, eta % 0,7k ez luke inor hartuko.

Beraz, esan dezakegu nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera oso onartuta dagoela EAeko biztanleen artean; izan ere, % 86 harrera egitearen alde dago.




Iturria: Ikuspegi.

7. grafikoan, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harreraren aldeko hiru aukeretako bat aukeratzen duten pertsonen ehunekoaren bilakaera ikus dezakegu 2008tik 2022ra. Nabarmentzekoa da 2022an ehuneko hori serie osoko daturik altuenera iritsi dela (% 97,2), 2020ko zifra (% 94,9) gaindituz, eta 2021eko portzentajea (% 86) baino 10 puntu handiagoa izanik.

Azpimarratu behar da 2015eko onarpen-mailaren igoera bat datorrela urte hartako errefuxiatuen krisiarekin. Nabarmentzekoa da, halaber, serieko bi datu altuenak bat datozela 2020ko pandemiarekin eta 2022ko Ukrainaren inbasioarekin. 2009tik aurrera, EAeko biztanleen % 70ek baino gehiagok adierazi du errefuxiatuak eta nazioarteko babesa eskatzen dutenak hartzearen alde dagoela.

## 7. grafikoa

Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak hartzearen aldeko EAeko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera, 2008-2022



Iturria: Ikuspegi.


## 3 Ukrainar jatorriko pertsonak

Gaur egungo testuinguruan, Errusiak Ukrainari egindako inbasioa dela-eta, beharrezkoa da nazioarteko babes bila Euskadira iritsi diren ukrainarren egoera aztertzea. Eusko Jaurlaritzako Ukrainako errefuxiatuak hartzeko Jarraipen Mahaia argitaratutako datuek erakusten dutenez, gatazkaren hasieratik irailera bitartean, Ukrainako 3.866 pertsonak eskatu dute EAEn aldi baterako nazioarteko babesak<sup>3</sup> –8. grafikoa–.

Grafikoak eskaintzen dituen datuetan sakonduz, ikusten dugu hasieran EAera gatazkatik ihesi iristen ziren ukrainarren kopurua handia izan zela. Hala, 2022ko apirilaren 20an, 1.800 pertsona inguruk eskatua zuten aldi baterako nazioarteko babesak EAEn, eta astean 200 eskaera berri egiten ziren. Joera hori hainbat hilabetez mantendu zen, harik eta ekainetik aurrera, aldi baterako babesak eskatzen zuten ukrainarren kopurua murriztu eta egonkortu zen arte, eta 2022ko irailaren 29an –erregistratutako azken datua– iritsi zen gorenera, 3.866 eskaera metatu baitziren egun horretaraino.

### 8. grafikoa

EAEn aldi baterako nazioarteko babesak eskatu duten Ukrainako pertsonak (absolutuak), 2022ko apirilaren 20tik irailaren 29ra



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

<sup>3</sup> Mekanismo hori Kontseiluaren 2001/55/EE Zuzentarauak, 2001eko uztailaren 20koak, arautzen du. Zuzentarau hori, batetik, aldi baterako babesak emateko gutxienezko arauak buruzkoa da, lekualdatutako pertsona asko iristen direnean, eta, bestetik, estatu kideen artean pertsona horiek hartzeko eta haien harreraren ondorioak bere gain hartzeko bidezko ahalegina sustatzeko neurriak buruzkoa.

Aldi baterako nazioarteko babesa eskatu duten pertsonen profilari dagokionez, 3. taulako datuek erakusten dute izapide hori eskatu duten Ukrainako pertsona gehienak emakume helduak eta adingabeak izan direla; bi talde horien artean egindako eskaera guztien % 87,0 osatzen dute.

Adingabeen artean, sexuaren arabera banaketa nahiko orekatua da, baina emakumeen portzentajea pixka bat handiagoa da (% 51,8). Adinez nagusi diren pertsonen kasuan, ordea, sexuen arteko aldea nabarmena da. Izan ere, Errusiaren inbasioarekin, Ukrainako Defentsa Ministerioak Gerra Legea<sup>4</sup> ezarri zuen, eta, besteak beste, 18 eta 60 urte bitarteko gizonei herrialdetik ateratzeko aukera mugatzeko baimena ematen zuen. Datuetan islatuta dago hori: 1.851 emakume inguruk eskatu dute aldi baterako nazioarteko babesa EAEn –helduen % 78,6–, baina eskaera egin duten gizonezkoak 504 bakarrik izan dira, hau da, helduen % 21,4<sup>5</sup>.

<sup>4</sup> Decree of the president of Ukraine N°64/2022 “On the imposition of martial law in Ukraine”

<sup>5</sup> Kontuan hartu behar da, otsailaren 24aren ondoren Ukrainatik atera ziren pertsonen gain, lehendik Europar Batasunean zeuden ukrainar jatorriko pertsonen ere eska dezaketela baimen hori.

### 3. taula

*EAEn aldi baterako nazioarteko babesa eskatu duten ukrainarren ezaugarri soziodemografikoak (datu absolutuak eta %), 2022ko irailaren 29 arte*

	Emakumeak	Gizonezkoak	Guztira	Emakumeen %	Gizonen %
18 urtetik behera	783	728	1.511	51,8	48,2
18 urtetik gora	1.851	504	2.355	78,6	21,4


*Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.*

Egoitza-baimenez gain, kontuan hartu beharreko beste elementu bat oinarrizko zerbitzuak eskuratzea da, hala nola osasuna edo hezkuntza –9. grafikoa–. Osasunaren kasuan, gatazkaren hasieratik 2022ko irailaren amaierara bitartean, Ukrainako pertsonak egindako Aldi Baterako Osasun Laguntza Dokumenturako (DAST) 1.445 eskaera erregistratu zituen Eusko Jaurlaritzak, eta Osasun Txartel Indibidualerako –OTI– 1.488 eskaera. DAST delakoa EAE n sei hilabetez osasun-laguntza ematen duen aldi baterako dokumentua da. Bestalde, OTI estatu mailako agiria da, eta Espainia osoko osasun zerbitzuak bi urtez baliatzeko aukera ematen du. Hasiera batean, Ukrainako pertsonak DAST bat eskatzen dute –izapideak egiteko nahikoa da pasaporte aurkeztea–, eta, beren egoera erregularizatu eta egoitza-baimena lortzen duten heinean, OTI bat eskuratzen dute; izan ere, hori lortzeko beharrezkoa da AIZ (Atzeritarraren Identifikazio Zenbakia) bat.

Hezkuntza-arloari dagokionez, ikasturte hasieran, Ukrainako 946 adingabeko zeuden matrikulatuta EAEko ikastetxeetan; beste 427 pertsona, berriz, beste irakaskuntza-zentro batzuetan matrikulatuta zeuden, hala nola hizkuntza-eskola ofizialetan edo helduentzako hezkuntza-zentroetan.

## 9. grafikoa

*Ukrainar jatorriko pertsonen sarbidea EAEko osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetan (absolutuak), 2022ko irailaren 29 arte*



*Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.*

## Ondorioak

- 2022an, nazioarteko babeserako 4.086 eskaera erregistratu dira EAEn, aurreko urtean (2021) baino % 136,9 gehiago. Joera aldatu egin da pandemiak markatutako aurreko bi urteekiko, horietan eskaeren kopurua jaitsi egin baitzen.
- Sexuari dagokionez, 2021ean gizonen ehunekoak emakumeena baino handiagoa izan zen, % 57,4 eta % 42,6, hurrenez hurren.
- Jatorri-eremu nagusia Latinoamerika da: 2021ean nazioarteko babesaren eskatu zuten lau pertsonatik hiru jatorri horretakoak dira. Horren ondoren, nahikoa tarte handiarekin, Saharaz hegoaldeko Afrika (guztizkoaren % 10) eta Asia (% 7,1) daude. Herrialdeka, Kolonbia, Venezuela, Nikaragua, Honduras eta Nigeria nabarmentzen dira.
- 2021ean egindako eskaera gehienak ukatu egin ziren (% 70,9). Venezuelaren kasua nabarmentzen da; izan ere, nazioarteko babesaren eskatu eta ezezkoa jaso zuten pertsona gehienek gerora lortu zuten egoitza-baimena, arrazoi humanitarioengatik.
- EAeko gizarteak jarrera irekia eta solidarioa du nazioarteko babesaren eskatzen duten pertsonetikiko –% 97,2 harrera egitearen alde dago–.
- Errusiak Ukrainari egindako inbasioaren testuinguruan, 2022ko irailaren 29 arte, gutxienez Ukrainako 3.866 pertsonak eskatu dute aldi baterako nazioarteko babesaren EAEn. Gehienak emakume helduak (% 47,9) eta adingabeak (% 39,1) izan dira.

## Bibliografia

ACNUR. (2023). Nigeria. <https://www.unhcr.org/nigeria.html>

NBE. (2022). *Moving from Reaction to Action: Anticipating Vulnerability in the Sahel: A Synthesis Report from the Sahel Predictive Analytics Project in Support of the United Nations Integrated Strategy for the Sahel (UNISS)*. <https://unis-sahel.org/wp-content/uploads/2022/11/SAHEL-PREDICTIVE-ANALYTICS-REPPORT-compresse.pdf>

<b>EAE 2022</b>	Nazioarteko babesaren <b>4.086</b> eskaera	<b>% 136,9</b> ko hazkundera 2021etik
---------------------	---	---

2021ean, <b>% 74,2</b> latinoamerikar jatorrikoak	<b>Jatorri nagusiak</b> Kolonbia, Venezuela eta Nikaragua
--	---

Ebazpenak	
Eskaera gehienak <b>ukatu egin dira</b>	<b>Salbuespena: Venezuela,</b> arrazoi humanitarioengatik emandako baimenen % 82

Ukraina 2022	
Aldi baterako nazioarteko babeserako <b>3.866</b> eskaera	<b>% 87,0</b> emakumezko helduak eta adingabeak